LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO

# UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 10/2018

L A S A R T E - O R I A KO UDALBATZARRAK **2018 KO UZTAILAREN 24AN** EGINDAKO **EZ-OHIKO BATZARRALDIAREN** AKTA.

ACTA DE LA **SESIÓN EXTRAORDINARIA** CELEBRADA POR EL PLENO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA EL DÍA **24 DE JULIO DE 2018.**

**ETORRITAKOAK:** / **ASISTENTES:**

| | | |
|---|---|---|
| JARDUNEKO ALKATEA:<br>ALCALDE EN FUNCIONES: | Dª Lourdes Acevedo Beldarrain and. | (PSE-EE-PSOE) |
| ALKATEORDEAK:<br>TENIENTES DE ALCALDE: | D. Agustín Valdivia Calvo jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Maite Iglesias Sánchez and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Jesús Alonso Ocáriz jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Nuria Fernandez Castrillo and. | (PSE-EE-PSOE) |
| ZINEGOTZIAK:<br>CONCEJALES: | D. José Mª Urdampilleta Zubitur jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Pablo Barrio Ramirez jn | (EH BILDU) |
| | Dª Leire Elizegi Beloki and. | (EH BILDU) |
| | D. Gorka Lizarraga Erro jn. | (EH BILDU) |
| | Dª Kristina Bernal Etxeberria and. | (EH BILDU) |
| | Dª Estitxu Alkorta Barragán and | (EAJ-PNV) |
| | D. Arkaitz Naya Carrasco jn. | (ADLOP) |
| | D. David Ares Rodriguez jn. | (ADLOP) |
| | Dª Alicia Garcia Patino and. | (ADLOP) |
| IDAZKARIA:<br>SECRETARIO: | D. Fco. Xabier A. Egea Jauregi jn. | |

**EZ ETORRIAK:** / **NO ASISTENTES:**

| | | |
|---|---|---|
| BEHIN-BEHINEKO KONTUHARTZAILEA:<br>INTERVENTOR ACCIDENTAL: | D. Enrique Lazkano Gaite jn. | |
| ZINEGOTZIAK:<br>CONCEJALES: | D. Jon Antxordoki Rekondo jn. | (EAJ-PNV) |
| | D. Alejandro Sáenz Muriel jn. | (PP) |


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

Lasarte-Oriako Udaletxeko Batzar-Aretoan, 2018ko UZTAILAREN 24ko 18:00 zirelarik, aldez aurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Jesús Mª Zaballos de Llanos Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 18:00 horas del día 24 de JULIO de 2018, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Jesús Mª Zaballos de Llanos, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jáuregui, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Udalbatzarra eratzeko "quórum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratua deklaratzen du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

**1.- IKERKETA TOPONIMIKOTIK ONDORIOZTATUTAKO LASARTE-ORIAKO NOMENKLATORRA BEHIN BETIKO IZAERAZ ONESTEA ETA LEKU-IZENDEGI ETA KALE-IZENDEGI OFIZIALAK BEHIN-BEHINEKO IZAERAZ ONESTEA.**

**1.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL NOMENCLÁTOR DE LASARTE-ORIA DERIVADO DEL ESTUDIO TOPONÍMICO Y APROBACIÓN PROVISIONAL DEL CATÁLOGO TOPONÍMICO OFICIAL Y DEL CALLEJERO OFICIAL.**

*Emendakina aurkezten da jatorrizko diktamina aldatzeko.

*Se presenta enmienda para modificar el dictamen original.

Alkorta andreak hartzen du hitza eta esaten du alde batetik, Lasarte-Oriako nomenklatorra behin-betiko izaeraz onestea ekarri nahi zela Udalbatzarrera, eta bestetik, leku izendegi eta kale izendegi ofizialak behin-behineko izaeraz onestea, hau da, bat behin-betikoz eta bestea behin-behinekoz. Azaltzen du aproposa ikusi dutela diktamina aldatzea arrazoi batengatik, zeren, leku izendegi eta kale izendegi ofizialen behin-behineko onespenaren ondoren, buletinera doanean, alegazioak egon daitezke tartean. Eta alegazio horiek baleude, kontraesanak ekarri ditzateke, behin-betikoz onetsitako nomenklatorrarekin. Beraz, proposatzen dutena da, behin-betiko izaeraz ez onestea, baizik eta biak, behin-behineko izaeraz onestea.

***EMENDAKINA/ENMIENDA***

Ikusirik Euskara Batzordeak 2018ko uztailaren 9ko bilkuran emandako diktamina, zeinetan proposatzen baita, alde batetik, ikerketa toponimikotik ondorioztatutako Lasarte-Oriako nomenklatorra behin betiko izaeraz onestea eta, bestetik, leku izendegi eta kale-izendegi ofizialak behin-behineko izaeraz onestea.

Ikusirik nomenklatorraren behin-behineko onespena 2016ko urriaren 17ko GAOn argitaratu zela eta eman zela 15 eguneko epea interesatuek iradokizunak eta alegazioak aurkezteko, eta egindako iradokizunak eta alegazioak behin betiko nomenklatorrean jasota daudela.

Kontuan izanda leku-izendegi eta kale izendegi ofizialen behin-behineko onespenak izan litzakeen alegazioetatik kontraesanak sor litezkeela Lasarte-Oriako nomenklatorraren behin betiko onespenari buruz, eta, beraz, egokiagoa litzatekeela dokumentu guztiak batera eta behin-behineko izaeraz onestea.

Udalbatzarrari proposatzen zaio Euskara Batzordeak 2018ko uztailaren 9ko bilkuran emandako diktamina aldatzea, batera eta behin-behineko izaeraz onetsiz bai Lasarte-Oriako nomenklatorra, bai leku-izendegi eta kale-izendegi ofizialak.

Bozkatzera jarrita emendakina, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, **AHO BATEZ** onartzen du hura.

Visto el dictamen emitido por la Comisión de Euskera en sesión celebrada el día 9 de julio de 2018, en el que se propone, por una parte, la aprobación definitiva del nomenclátor de Lasarte-Oria derivado del estudio toponímico y, por otra, la aprobación provisional y del callejero oficial.

Visto que la aprobación provisional del nomenclátor fue publicada en el BOG de fecha 17 de octubre de 2016 y se concedió un plazo de 15 días para la presentación de sugerencias y alegaciones y que las aportaciones y alegaciones realizadas están incluidas en el nomenclátor.

Considerando que las posibles alegaciones que pudieran presentarse a la aprobación provisional del catálogo toponímico oficial y del callejero oficial podrían generarse contradicciones con respecto a la aprobación definitiva del nomenclátor de Lasarte-Oria, por lo que sería más apropiado aprobar todos los documentos de forma conjunta y con carácter provisional

Se propone al Pleno Municipal modificar el dictamen emitido por la Comisión de Euskera en sesión celebrada el día 9 de julio de 2018 aprobando de forma conjunta y con carácter provisional tanto el nomenclátor de Lasarte-Oria como el catálogo toponímico oficial y del callejero oficial.

Sometida a votación la enmienda, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por **UNANIMIDAD** aprueba la misma.


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

Ikusirik Euskara Batzordeak, 2018ko uztailaren 9an eginiko bilkuran emandako diktamina.

Visto el dictamen emitido por la Comisión de Euskera, en sesión celebrada el día 9 de julio de 2018.

Ikusirik 2016ko urriaren 11n udalbatzarrak behin-behineko izaeraz onetsi zuela Lasarte-Oriako ikerketa toponimikoa eta handik eratorritako nomenklatorra.

Visto que el Pleno Municipal, en sesión celebrada el 11 de octubre de 2016, acordó aprobar con carácter provisional el estudio toponímico de Lasarte-Oria y el nomenclátor derivado del mismo.

Ikusirik behin-behineko onespena 2016ko urriaren 17ko GAOn argitaratu zela, 15 eguneko epea emanez interesatuek iradokizunak eta alegazioak aurkezteko.

Visto que la aprobación provisional fue publicada en el BOG de fecha 17 de octubre de 2016, concediéndose un plazo de 15 días para la presentación de sugerencias y alegaciones.

Ikusirik epe horretan bertan, Euskararen 9. Maratoia aprobetxatuz, erakusketa publiko bat ere egin zela, interesatuek ekarpenak egiteko, eta ikerketa egin zuen enpresak erakustaldiko ekarpenekin behin betiko proposamen bat prestatu zuela.

Visto que en ese mismo plazo, coincidiendo con el 9º Maratón del Euskera, también se realizó una exposición pública para la realización de aportaciones por parte de los interesados, y que la empresa elaboradora del estudio formuló una propuesta definitiva con las aportaciones de dicha exposición.

Ikusirik Euskara Batzordeak 2016ko abenduaren 22ko bileran erabaki zuela udalbatzarrari proposatzea azken proposamenari behin betiko onespena eman ziezaiola, ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

Visto que la Comisión de Euskera, en sesión celebrada el 22 de diciembre de 2016, acordó proponer al Pleno Municipal la aprobación definitiva de la propuesta final, para su posterior publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Ikusirik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari nomenklatorra argitaratzeko moduaz kontsulta eginda, Lasarte-Oriako Udalaren ekimenez burututako ikerketa toponimikotik eratorritako izendegi geografikoa moldatu eta ofizializa daitezkeen leku-izenak bereizi behar izan direla.

Visto que, efectuada consulta a la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco sobre la forma de publicar el nomenclátor, ha sido preciso proceder a adaptar el nomenclátor geográfico derivado del estudio toponímico realizado a iniciativa del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, clasificando aquéllos topónimos que pueden ser oficializados.


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

Ikusirik, bestalde, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak igorritako proposamenak eta haiei buruzko ziurtagiriak, izendegiak behar bezala osatuta eta datu-base ofizialetan kargatzeko moduan prestatuta daudela ziurtatzen dutenak.

Vistos, por otra parte, las propuestas remitidas por la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco y sus correspondientes certificados, en los que consta que los catálogos están elaborados de forma correcta y de manera que puedan se cargados en las bases de datos oficiales.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aurkeztutako emendakinean onartutako aldaketa kontuan harturik, **AHO BATEZ** honako akordioak hartzen ditu:

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, teniendo en cuenta la modificación aprobada por la enmienda presentada, por **UNANIMIDAD** toma los siguientes acuerdos:

1) Ikerketa toponimikotik ondorioztatutako Lasarte-Oriako nomenklatorra behin-behineko izaeraz onestea.

1) Aprobación provisional del nomenclátor de Lasarte-Oria resultante del estudio toponímico.

2) Lasarte-Oriako leku-izendegi eta kale-izendegi ofizialak behin-behineko izaeraz onestea, eta behin-behineko onespenaren iragarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidaltzea, argitaratzen den egunetik aurrera espedientea hamabost egun naturalez jendaurrean erakutsiko dela jakinaraziz, interesatuek egoki irizten dizkieten iradokizunak eta alegazioak aurkez ditzaten. Inork alegaziorik edo iradokizunik aurkezten ez badu, leku-izendegi eta kale-izendegi ofizialen erabakia behin betikotzat joko da.

2) Aprobación provisional del catálogo toponímico oficial y del callejero oficial de Lasarte-Oria, así como la remisión del anuncio de aprobación provisional al Boletín Oficial de Gipuzkoa, informando de la exposición pública del expediente durante el plazo de quince días naturales a partir de su publicación, a fin de que los interesados puedan presentar las sugerencias y alegaciones que estimen oportunas. En caso de que no se presenten alegaciones o sugerencias, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo sobre el catálogo toponímico y callejero oficiales.

3) Leku-izendegi eta kale-izendegi ofizialen erabakia behin betikoa bihurtzen denean, Eusko Jaurlaritzara igorriko zaizkio, bai nomenklator osoa, bai izendegi ofizialak, EAEko Izendegi Geografikoan eta Eustateko kale-izendegian txerta ditzan.

3) Cuando el acuerdo sobre el catálogo toponímico y callejero oficiales se eleve a definitivo, se remitirán al Gobierno Vasco tanto el nomenclátor completo con los catálogos oficiales, a fin de que los integre en el Nomenclátor de la CAV y en el callejero de Eustat.


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | 0034 943 376055 | udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

**2.- ATSOBAKAR ZAHARREN EGOITZAREN ARAUDIA BERTAN BEHERA UZTEA.**

Ikusirik Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Kooperazio eta Osasuneko Batzorde Informatiboak, 2018ko uztailaren 18ko ez-ohiko bilkuran emandako diktamina.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, **AHO BATEZ** honako akordioak hartzen ditu:

**Lehena.-** Lasarte-Oriako Udaleko, Atsobakar Zaharren Egoitzaren Erregelamendu Orokorra indargabetzea.

**Bigarrena.-** Akordio hau GAO-n argitaratzea.

**Hirugarrena.-** Indargabetzearen ondorioak akordioa GAOn argitaratzen den egunetik aurrera gertatuko dira.

**2.- DEROGACIÓN REGLAMENTO DE LA RESIDENCIA ATSOBAKAR.**

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Servicios Sociales, Igualdad, Cooperación y Salud, en reunión extraordinaria celebrada el día 18 de julio de 2018.

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por **UNANIMIDAD** toma los siguientes acuerdos:

**Primero.-** Derogar el Reglamento General de la Residencia de Personas Mayores Atsobakar del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

**Segundo.-** Publicar dicho acuerdo en el BOG.

**Tercero.-** Los efectos de la derogación se producirán a partir del día de la publicación del acuerdo en el BOG.

**3.- "OFIZIALA-UDALTZAIN BURUA" ETA "SARJENTUA-OFIZIALORDEA" LANPOSTU BERRIEI DAGOKIEN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNARI ETA DERRIGORTASUN-DATARI BURUZKO PROPOSAMENA. HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK HELARAZITAKO TXOSTENA IKUSITA.**

Ikusirik Barne-Erregimeneko, Herritarren Parte Hartzeko eta Gardentasuneko Batzorde Informatiboak, 2018ko uztailaren 18ko bilkuran emandako diktamina.

Barne Erregimeneko, Herritarren Parte Hartzeko eta Gardentasuneko Batzordeburuak aurkeztutako proposamena ikusirik, "Ofiziala-Udaltzain burua" eta Sarjentua-Ofizialordea" lanpostu

**3.- APROBACIÓN DEL PERFIL LINGÜÍSTICO Y LA FECHA DE PRECEPTIVIDAD DE LOS NUEVOS PUESTOS DE "OFICIAL –JEFE DE LA POLICÍA MUNICIPAL" Y DE "SARGENTO-SUBOFICIAL", A LA VISTA DEL INFORME REMITIDO POR LA VICECONSEJERÍA DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA.**

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia, en la sesión celebrada el día 18 de julio de 2018.

Vista la propuesta presentada por la Sra. Presidenta de la Comisión Informativa de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia en relación a la fijación del perfil lingüístico y la


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

berriei hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data finkatzeari dagokiona, ondoren zehazten dena:

fecha de preceptividad a los nuevos puestos de "Oficial-Jefe de la Policía Municipal" y de "Sargento-Suboficial", siendo la siguiente:

| Lanpostuaren izendapena/ Denominación del Puesto de Trabajo | Dotazioen kopurua/ Número de Dotaciones | Hizkuntza-eskakizuna/ Perfil Lingüístico | Derrigortasun-data/ Fecha de Preceptividad |
|---|---|---|---|
| Ofiziala-Udaltzain burua/ Oficial-Jefe de la Policía Municipal | 1 | 3 | 2018/04/10 |
| Sarjentua-Ofizialordea/ Sargento-Suboficial | 1 | 3 | 2018/04/10 |

Ikusirik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 2018ko uztailaren 9an, egindako txostena, proposamenarekin bat datorrena.

Visto el informe emitido al respecto por la Viceconsejería de Política Lingüística con fecha 9 de julio de 2018, que es conforme a dicha propuesta.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, **AHO BATEZ** goian aipaturiko proposamena **ONESTEN** du.

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por **UNANIMIDAD APRUEBA** la propuesta anteriormente citada.

---

18:09 direnean aretora sartu da Lizarraga jauna, eta, beraz, aurrerantzean, bozketei dagokienez, kopuruz 14 dira bildutakoak, Udalbatza izatez eta zuzenbidez osatzen duten 17etatik.

Cuando son las 18:09 entra en la sala el Sr. Lizarraga, por lo que en lo sucesivo y a efectos de votaciones, son 14 el número de asistentes, de los 17 que de hecho y derecho forman la Corporación.

**4.- "KAPORALA-AGENTE LEHENA" BOST LAPOSTUEI HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA ETA DERRIGORTASUN-DATA ALDATZEARI BURUZKO UDALBATZAREN AKORDIOAREN AURKA EAJ/PNV UDAL-TALDE POLITIKOAK PARATUTAKO BERRAZTERTZEKO HELEGITEARI EZEZKOA EMATEA.**

**4.- DESESTIMACIÓN DEL RECURSO DE REPOSICIÓN INTERPUESTO POR EL GRUPO POLÍTICO MUNICIPAL EAJ/PNV CONTRA EL ACUERDO PLENARIO POR EL QUE SE MODIFICA EL PERFIL LINGÜÍSTICO Y LA FECHA DE PRECEPTIVIDAD A LOS CINCO PUESTOS DE "CABO-AGENTE 1º".**


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

Alkorta andreak hartzen du hitza eta esaten du hasiera batean, era laburrean azaldu nahi duela zertan zatzan beraien helegitea. Bertan salatzen zen, nola 2013an Udalbatzar honek erabaki bat hartu zuen Kaporal Agente Lehenen lanpostuen hizkuntz eskakizunari dagokionez, erabaki hori oinarri tekniko batzuekin eta legezko prozedura guztiak beteta hartu zela, eta gero 2018ko azken Udalbatzarrean 3tik 2ra jaistea erabaki zela, arrazoi politikoengatik soilik. Aipatzen du zorionez prozedura lege bat dagoela, ez duena zerikusirik euskararen erabilera normalizatzeko dekretuarekin, ezta ere beraien erabilera planarekin, non esaten duen horrelako erabakiak ezin direla aldatu arrazoitzen ez baldin badira. Nabarmentzen du hori dela beraien helegitearen arrazoi nagusiena, eta beraz, arrazoitu egin behar zela. Gaineratzen du hori Udalbatzarraren aurretik esan zutela ahoz zein idatziz, eta bai ahoz eta bai idatziz, Alkateak aurreko Udalbatzarrean esan zuenez, emailez erantzun ziotela Pertsonaleko Zuzendaritzatik, eta bertan esaten zen txosten horren beharrik ez zegoela, eta bertan dauka ikusi nahi duenarentzat. Ondorioz helegite bat jarri behar izan dute txosten hori jasotzeko, zeren orain txosten bat idatzi du, argudiatzen edo argudiatzen saiatuz zergatik dagokion 2.a. Beraz, lehenik eta behin eskerrak ematen ditu zeren zati batean arrazoia eman diete, hau da, txosten hori beharrezkoa zen. Gertatzen dena da, bai ahoz Alkateak esan bezala, eta bai idatziz Pertsonaleko Arduradunak esan zionez bezala, zoritxarrez justifikaziorik ez duenak ezin dela justifikatu, baina saiatu egin dela txostenean. Esaten du azaltzen saiatuko dela zer nolako inkoherentziak dauden txosten horretan, eta zergatik beraientzat ez duten balio arrazonamendu horiek, bakoitzak gero kontzienteki bere bozka eman dezan. Aipatzen du hasieran dioela, "arrazoi politiko hutsa dagoela onartutako aldaketaren atzean", beraz ez dagoela justifikazio teknikorik. Baina txosten berean, handik bi paragrafotara, berez teknikoki 2. hizkuntza eskakizuna dagokiola lanpostuari dio, zergatik eta Pertsonaleko Arduradunak esaten duelako eta punto. Berak ondo aztertu dituelako lanpostuaren funtzioak eta beraz, Euskara Zerbitzuak ez omen duelako 3. hizkuntza eskakizuna eskatzearen proposamena behar zen bezala justifikatu. Nabarmentzen du, hori dela txostenak esaten duena. Hau da, 2013ko Udalbatzarrean, Kaporal Agenteen lanpostuari 3. hizkuntza eskakizuna onartzeko proposamena onartu zenean, ez omen ziren lanpostuaren funtzioak, orokorrak zein bereziak, behar ziren bezala justifikatuak izan. Berresten du, hori dioela orain Pertsonaleko Arduradunak. Eta hori argudiatzen du Eusko Jaurlaritzak irizpide gisa zabaldu duen dokumentu baten harira, zeinetan, proposatzen den gainera, Kaporal Agente Lehenari oro har 2. hizkuntza eskakizuna eskatu behar zaiela, baina 3.a ere onargarria izan daitekeela. Beraz, berak heltzen duen dokumentu horrek, ez du talka egiten 2013an hemen hartutako erabakiarekin. Azaltzen du era laburrean honakoa esaten duela, alde batetik, HPS-ko txostenak ez direla lotesleak, eta jarraian HPS-k helarazitako dokumentu bati heltzen dio 2. hizkuntza eskakizuna onartzen dela defendatzeko. Bestetik, 3.etik 2.era aldatzeko arrazoia politikoa dela argudiatzen da txostenaren hasieran, eta handik gutxira, lanpostu horiei teknikoki 2. hizkuntz eskakizuna dagokiela argudiatzen saiatzen da. Beraz, inkoherentzia totala txosten osoan, beraien iritzian. Aipatzen du, hori guztiaz aparte, gainera, Udaltzainen euskalduntze esfortzuan Udal honek jarritako baliabideen inguruan aipamenik ez dela egiten txostenean. Hortaz, beraiek argi utzi nahi dutena, momentu honetan loteslea den gauza bakarra, 2013an Udalbatzar honek Kaporal Agente Lehenei 3. hizkuntz eskakizuna jartzeko aldeko erabakia dela. Eta erabaki hori legezko prozedura guztiak errespetatuz hartu zela. Hau da, 97ko dekretua errespetatuz, lanpostuaren eginkizunak aztertuz eta aintzakotzat hartuz, Euskara Zerbitzuaren proposamena Batzordean onartuaz, beraien Euskara Erabiltzeko 3. Plana errespetatuaz, HPS-ren aldeko txostena eskuratuaz, eta hori gutxi balitz, 4 Udaltzainei Udal baliabideak eskainiz euskarazko formakuntza jasotzeko. Jarraitzen du esaten, azken finean, prozedura lege bat dagoela, non esaten den, erabaki politikoengatik ezin direla, aurretik hartutako erabakiak besterik gabe aldatu. Beraz, esaten du, hala

eta guztiz ere, beraien helegitea deuseztatzea erabakiko balitz, zalantzarik ez izateko aurrera egingo dutela, eta dagokion epaitegian salatuko dutela, kontzienteki hartuko duten, eta beraien ustez legez kanpo dagoen erabakia delako.

Toma la palabra el Sr. Naya y dice que le sorprende que la Portavoz de EAJ-PNV diga que ya se tomó una decisión al respecto, y que no se puede cambiar dicha decisión, cuando previamente se aprobó el perfil 2, y fue su grupo el que decidió cambiar de una abstención a un posicionamiento a favor del perfil 3. Explica que eso hizo que una decisión plenaria perfil 2, pasara a perfil 3, y es su decisión la que ha vuelto a hacer que esto vuelva a cambiar a perfil 2. Por todos los argumentos que ya han comentado en múltiples ocasiones, y que no van a volver a repetir en este momento. Comenta que para ellos este informe es válido, y se mantienen en el posicionamiento definitivo que ya tuvieron en el último Pleno. Añade que la Policia Municipal de este Ayuntamiento tiene probablemente serias carencias de recursos, que hacen que no sea la Policia Municipal más eficiente para este municipio, y desde su grupo municipal están trabajando para intentar llevar a cabo una propuesta que recoja todas esas carencias, e intente que sea la Policia Municipal que este municipio necesita.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du kontu honetan bi arlo daudela bere iritziz. Alde batetik, aipatzen du aurreko Plenotan erabilitako argumentuak indarrean daudela beraien ustez, inoiz baino gehiago agian. Bestalde, prozedura aldetik, PNV-ko ordezkariak esan dituenarekin alde daudela. Horrela, orain helegitearen aurrean zer daukaten ikustera iristen direla. Beraz, prozeduraren ikuspegitik, txosten bat dagoela, oinarrituta, bere argumentazioekin, eta horren parean, orri anonimo bat, inongo teknikaririk sinatu ez duen orri bat. Korreoz bidalia, eta Pleno honi begira bidalitako dokumentazioaren artean zegoena. Hori besterik ez. Berresten du sinadurarik ez dela agertzen, eta horrek inongo baliorik ez duela beraientzat. Azaltzen du, horregatik bakarrik, eta asko sakondu gabe, garbi daukatela helegitea oinarrituta dagoela, eta helegitearen aldeko postura hartuko dutela.

Alkorta andreak hartzen du hitza Naya jaunak esandakoari erantzuteko eta esaten du Udalbatzar honek 3. hizkuntz eskakizuna jartzeko proposamena onartu zuenean, erabat motibatuta eta arrazoituta zegoela. Gero horren alde egitea edo ez beste gauza bat zela, baina motibatuta eta arrazoituta bazegoela. Beraz, beraiek prozedura legea bete zutela, eta orain ez dela hori betetzen ari. Gaineratzen du, Alkateak berak esan duela, arrazoi politiko hutsak daudela honen atzean, ez arrazoi teknikoak, eta berari bakarrik bidali zion emaila ere bertan daukala hori esanez. Aipatzen du hori dela urratzen ari dena eta prozedura legeak, zorionez, hori saihestu nahi duela. Berresten du hori dela salatzen dutena. Udaltzainen zerbitzua kaltetua aterako dela esan duenaren inguruan, galdetzen dio ea badakien 20 urte daramatzatela Kaborik gabe, beraz ea zertan aterako den kaltetua. Esaten du orain 3 Kaboekin bete ahal izango balitz plantilla, hala eta guztiz ere hobekuntza bat dela, ez dagoela kalterik, eta ez dakiela non ikusten dutena kaltea, nahiz 3, 4 edo 5 Kabo izan.

Toma la palabra la Sra. Acevedo y dice que querría situarse un poco en el tiempo. Comenta que ciertamente en el 2013 se aprobó un perfil 3 y se iba a hacer una promoción interna, que hay que recordar, la cual votaron en contra del Partido Socialista y el Partido Popular, porque lo que se pretendía era que las únicas cinco personas de la Policia municipal que tenían el perfil 3, ocuparan las plazas. Cosa que les parecía hacer un zapatito a medida de aquellos agentes. Explica que las mayorías es lo que tienen, es decir, ellos a veces han aprobado cosas en este Pleno, que luego otras mayorías las han desestimado. Esto no es ningún sin no estás conmigo estas

contra el Euskera, que es algo que se vende mucho por parte de otras fuerzas políticas de este Ayuntamiento, y hay que decir que este Ayuntamiento en materia de política lingüística respeta los perfiles. Otra cosa es que entienden y creen que este perfil es exagerado. Explica los motivos por los cuales les parece exagerado. Comienza diciendo que es cierto que se aprobó un perfil 3, y en aquella Comisión expresó claramente que si tuviera la mayoría correspondiente, por las funciones que tenía un Cabo apoyaría un perfil 2. Y si no que le expliquen por qué un Jefe y un Subjefe tienen el perfil 3, quizá sea porque no entiende mucho. Dicho esto, comenta que se acordó con los sindicatos, y con los agentes, el hacer una promoción interna. En dicha promoción tuvieron un escrito y una petición de 16 agentes donde decían que en muchos Ayuntamientos se pedían perfiles más bajos, y no entendían por qué aquí pedían el 3. Añade que en ese trasiego hablaron con una formación política, hubo un cambio en su postura, la cual le agradece al Sr. Naya, con lo que han posibilitado que todos los agentes se puedan presentar. Por otro lado, le recuerda al Sr. Barrio que en la pasada Comisión de Régimen Interior le dijo que asumía ese informe personalmente, porque es la Presidenta de Régimen Interior, porque cree que han actuado correctamente, y porque va a llevar a Comisión todos los temas, ya que no va a esconder absolutamente nada, porque cree que la política es eso, debatir, tener opiniones diferentes, esa es la democracia. También hace mención a que en ese informe hay una parte en la que viene a decir que *"tras el estudio realizado durante el 2017 por la Dirección para la Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas, se ha redactado un documento que se adjuntó con la convocatoria, en la que se hace una propuesta general sobre los perfiles lingüísticos a asignar a los diferentes puestos. La tabla 13 relativa a las fuerzas de seguridad, plantea que a los puestos de Cabo Agente Primero, les corresponde en general un PL2, y que en casos especiales y teniendo en cuenta las funciones comunicativas, orales y escritas, que les corresponden, sería aceptable un PL 3".* Insiste en que ayer se tomó la atribución de estar mirando oposiciones, e incluso ver que era el PL2, y venía a decir Interior del Gobierno Vasco, que el PL2 era la redacción de documentos tanto orales como escritos, es decir, que no es hacer nada especifico con unos tecnicismos especiales. Añade que de hecho el Jefe y el Subjefe tienen el perfil 3. Sigue diciendo que lo que han tratado en esta Promoción interna es dar oportunidad a todos los agentes, y el resto lo van a aprobar en la OPE. Dice que respeta que se dirijan al contencioso-administrativo, igual va siendo hora que de una vez por todas se esclarezcan las cosas, y por fin todos los ayuntamientos tengan el mismo criterio. Para terminar dice que si necesitan ese informe firmado por ella, no tendrán ningún problema en obtenerlo, porque insiste en que cree que es lo correcto y lo justo.

Toma la palabra la Sra. Alkorta y le dice a la Sra. Acevedo que está intentando argumentar o dar una justificación técnica, a algo que ellos mismos han admitido que no la tiene, que solo hay una posición política detrás. Y ahora se está metiendo en las funciones de los puestos, que si le conviene el 2 o el 3, cuando está clarísimo que el argumento fundamental, y así lo han dicho una y otra vez, es el político. Con lo cual, que ahora se meta con qué funciones tienen para asignar el perfil, le parece asombroso. Comenta que a raíz de la decisión que se tomó en el 2013 de proponer ese perfil 3 a los Cabos, este Ayuntamiento ha empleado recursos municipales para euskaldunizar a 4 municipales. Concretamente se les ha compensado 1020 horas lectivas en horas de trabajo, y se han pagado 5 matriculas en el Euskaltegi, a través de ese acuerdo Plenario. Entonces, cree que está más que justificada su petición de motivar técnicamente el cambio del 3 al 2.


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

Toma la palabra la Sra. Acevedo y dice que esos agentes que tienen el perfil 3, podrán presentarse a la OPE pública que habrá para ocupar las plazas de Jefe y Subjefe, que de la otra forma no hubieran podido.

Ikusirik Barne-Erregimeneko, Herritarren Parte Hartzeko eta Gardentasuneko Batzorde Informatiboak, 2018ko uztailaren 18ko bilkuran emandako diktamina.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia, en la sesión celebrada el día 18 de julio de 2018.

Ikusirik "Kaporala-Agente Lehena" bost lanpostuei hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data aldatzeari buruzko udalbatzaren akordioaren aurka EAJ/PNV udal-talde politikoak paratutako berraztertzeko helegitea, non eskatzen duen literalki "Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluari jarraiki aurkezten dudan berraztertzeko helegite hau aintzat hartzea eta, horren ondorioz, aipatutako erabakia deuseztatzea"

Visto el recurso interpuesto por el grupo político municipal EAJ/PNV contra el acuerdo plenario por el que se modifica el perfil lingüístico y la fecha de preceptividad a los cinco puestos de "Cabo-Agente 1º", en el que solicita literalmente "Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluari jarraiki aurkezten dudan berraztertzeko helegite hau aintzat hartzea eta, horren ondorioz, aipatutako erabakia deuseztatzea".

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko bederatzi botorekin (6 PSE-EE-PSOE, 3 ADLOP) eta kontrako bost botorekin (4 EH BILDU, 1 EAJ-PNV), "Kaporala-Agente Lehena" bost lanpostuei hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data aldatzeari buruzko udalbatzaren akordioaren aurka EAJ/PNV udal-talde politikoak paratutako berraztertzeko helegiteari ezezkoa ematea adosten du, ondorengo erantzuna emanez:

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con nueve votos a favor (6 PSE-EE-PSOE, 3 ADLOP) y cinco votos en contra (4 EH BILDU, 1 EAJ-PNV), acuerda la desestimación del recurso interpuesto por el grupo político municipal EAJ/PNV contra el acuerdo plenario por el que se modifica el perfil lingüístico y la fecha de preceptividad a los cinco puestos de "Cabo-Agente 1º" y darle respuesta en el sentido siguiente:

*"Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, 2018ko ekainaren 12an eginiko ohiko bilkuran, "Kaporala-Agente Lehena" bost lanpostuei hizkuntza-eskakizuna (3. HEtik 2. HEra) eta derrigortasun-data aldatzea onetsi zuen.*

*Udalbatzaren akordio horren aurka EAJ/PNV udal-talde politikoak berraztertzeko helegitea paratu du. Azaltzen du iaz Udalbatzarrak erabaki zuela dotazio guztiei 3. hizkuntza eskakizuna ezartzea, Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuak emandako txosten teknikoaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzak helarazitako txosten aginduzkoaren arrazoiak jarraituz. Orain, ordea, "Kaporala-Agente Lehena" bost dotazioen hizkuntza-*

*eskakizuna 3. HEtik 2. HEra aldatzea onartu da, helegilearen aburuz aldaketaren arrazoia azaldu gabe eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. artikuluak xedatzen duena urratuz.*

*Lasarte-Oriako Udalbatza osatzen duten zinegotziek bozkatu egiten dituzte proposamen ezberdinak eta gehiengoa lortzen dutenak onartzen dira. Iaz "Kaporala-Agente Lehena" bost dotazioei 3. HE ezartzea onartu zen baina orain, bozkak aldatu direlako eta gehiengoa irauli delako, 3. HEtik 2. HEra aldatzea onetsi da. Gogorarazi behar da aipatutako txostenak ez direla lotesleak eta Udaltzaingoko buruek, ofizialak eta ofizialordeak, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna izango dutela esleitua. Ez da txosten teknikorik osatu behar, ez delako lanpostuaren zereginetan aldaketarik izan, 86/1997 Dekretuaren 23.2.d) artikuluan jasotakoari erantzunez.*

*Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzak 2017an egin berri duen azterketaren ondorioz sortutako dokumentuak ("Hizkuntza-eskakizunak esleitzeko proposamena" izenekoak), deialdiarekin batera igorri denak, proposamen orokor bat egiten du lanpostuei esleitu dakizkiekeen hizkuntza eskakizunak zehaztuz: babes indarrei buruzko 13. taularen arabera, "Kaporala-Agente Lehena" lanpostuei, oro har, 2. HE dagokie; hala ere, zenbait kasu berezitan eta betiere lanpostuaren ahozko eta idatzizko funtzio komunikatiboak kontuan, 3. HE ere onargarria izan liteke.*

*Lasarte-Oriako kaporal-agente lehenek esleituta dituzten funtzioak Kidegoko orokorrak dira, inola ere ez bereziak: ondorioz, lanpostu horiei 2. HE dagokie. Eta 3. HE babesten duenak arrazoitu beharko lituzke berezitasunak egoera berri hontan, ahaztu barik Auzitegi Gorenaren epaiek hizkuntzaren ondorioz diskriminazio eza finkatzen dutela.*

*Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza berak proposatutako irizpide berriekin bat eginez zuritzen da hizkuntza eskakizunaren aldaketa. Gauzak horrela, goian aipatutako akordioa zilegi da eta berraztertzeko helegiteari ezezkoa ematen zaio."*

**5.- 2018. URTERAKO TAULA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA.**

Ikusirik Barne-Erregimeneko, Herritarren Parte Hartzeko eta Gardentasuneko Batzorde Informatiboak, 2018ko uztailaren 18ko bilkuran emandako diktamina.

2018ko apirilaren 10eko datarekin udalbatzarrak onartu zuen 2018. urterako taula organikoa eta lanpostuen zerrenda. Onartutako zerrendan hainbat puntu ebatzi gabe geratu ziren, sortu berri diren lanpostuen hizkuntza eskakizunak behin-behinekoak izanik: legeak

**5.- APROBACIÓN DE LA PLANTILLA ORGÁNICA Y RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO PARA EL AÑO 2018.**

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia, en la sesión celebrada el día 18 de julio de 2018.

En sesión plenaria de fecha 10 de abril de 2018 fue aprobada la Plantilla Orgánica y la Relación de Puestos de Trabajo para el año 2018. En la relación aprobada quedaron algunos aspectos pendientes por resolver, puestos de nueva creación cuyos perfiles lingüísticos eran

agintzen duen prozedura burututakoan definitiboki ezartzekotan.

provisionales y se asignarían de forma definitiva a la finalización del procedimiento legalmente establecido.

2018ko ekainaren 12ko datarekin udalbatzarrak onartu zituen ondoren zehazten diren lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun datak finkatzea:

En sesión plenaria de fecha 12 de junio de 2018 se aprobó la fijación de los perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad de los puestos indicados a continuación:

| Lanpostuaren izendapena/ Denominación del Puesto de Trabajo | Dotazioen kopurua/ Número de Dotaciones | Hizkuntza-eskakizuna/ Perfil Lingüístico | Derrigortasun-data/ Fecha de Preceptividad |
|---|---|---|---|
| Ondareko Administraria/ Administrativo de Patrimonio | 1 | 2 | 2018/04/10 |
| Arkitektu Aholkularia/ Arquitecto Asesor | 1 | 3 | 2018/04/10 |

Barne-Erregimeneko, Herritarren Parte Hartzeko eta Gardentasuneko Batzorde Informatiboak, 2018ko uztailaren 18ko datarekin, udalbatzarrari proposatzen dio ondoren zehazten diren lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun datak finkatzea:

La Comisión Informativa de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia, en su sesión de fecha 18 de julio de 2018, propone al Pleno la fijación de los perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad de los puestos indicados a continuación:

| Lanpostuaren izendapena/ Denominación del Puesto de Trabajo | Dotazioen kopurua/ Número de Dotaciones | Hizkuntza-eskakizuna/ Perfil Lingüístico | Derrigortasun-data/ Fecha de Preceptividad |
|---|---|---|---|
| Ofiziala-Udaltzain burua/ Oficial-Jefe de la Policía Municipal | 1 | 3 | 2018/04/10 |
| Sarjentua-ofizialordea/ Sargento-Suboficial | 1 | 3 | 2018/04/10 |

Halaber, 2018ko ekainaren 12ko datarekin udalbatzarrak onartu zuen ondoren zehazten diren lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun datak aldatzea:

Asimismo, En sesión plenaria de fecha 12 de junio de 2018 se aprobó la modificación de los perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad de los puestos indicados a continuación:


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

| Lanpostuaren izendapena/ Denominación del Puesto de Trabajo | Dotazioen kopurua/ Número de Dotaciones | Hizkuntza-eskakizuna/ Perfil Lingüístico | Derrigortasun-data/ Fecha de Preceptividad |
|---|---|---|---|
| Kaporala-Agente Lehena/ Cabo-Agente Primero | 5 | 2 | 2018/01/01 |

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko bederatzi botorekin (6 PSE-EE-PSOE, 3 ADLOP) eta kontrako bost botorekin (4 EH BILDU, 1 EAJ-PNV), Lasarte-Oriako Udaleko 2018. urterako Taula Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda onartzea adosten du, biak G.A.O.n argitaratu behar direlarik.

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con nueve votos a favor (6 PSE-EE-PSOE, 3 ADLOP) y cinco votos en contra (4 EH BILDU, 1 EAJ-PNV), acuerda la aprobación de la Plantilla Orgánica y de la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Lasarte-Oria para el año 2018, debiendo publicarse ambos en el B.O.G.

Eta beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 18:29 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 18:29 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F